



ARRAUTZAK ERAGINDAKO ALERGIA

Zer da arrautzak eragindako alergia?

Arrautzak eragindako alergiada **arrautzek dituzten proteinek eragindako organismoaren kontrako erreakzioa**, arrautzaren ingestaren edo kontaktuaren ondorioz sortzen dena. Erreakzioa **mekanismo immunologiko** batek sortzen du, eta arrautzek eragindako alergiaren aurrean minberatasuna duten pertsonen artean baino ez da gertatzen. Elikagaiekin lehenengo kontaktua izan ondoren, IgE immunoglobulina sortzen duten pertsonak dira. Immunoglobulina horiek arrautza-proteinen kontra jarduten dute berariaz. Erreakzioa errepikatu egiten da elikagaiarekin kontaktua dagoen bakoitzean.



Arrautzak eragindako elikagai-alergiak ez du inolako loturarik bakterioekin kutsatuta dauden arrautzen ingestaren ondorioz sor daitezkeen bestelako kontrako erreakzio batzuekin, horiek erreakzio toxikoak eragin ohi dituzte eta.

Arrautzen alergenak

Oro har, arrautzak eragindako alergia jasaten dutenek zuringoaren ingestaren ondorioz izaten dute erreakzioren bat. Arrautza-gorringoak proteina ugari baditu ere, zuringoak alergeno handiagoak izaten ditu; honako hauek, hain zuzen:

ZURINGOA:

- Obomukoidea
- Oboalbumina
- Obotransferrina edo konalbumina
- Obomuzina
- Lisozima

Obomukoidea proteina garrantzitsuena da alergia-erreakzioak agertzen direnean, seguruenik beroaren eta digestio-entzimatikoaren jardueraren aurreko erresistentzia handiagoa duelako.

Obotransferrina eta lisozima ez dira hain egonkorak beroaren aurrean, eta alergeno ahulagoak dira.





GORRINGOA:

Pikorrak

Libetinak

Dentsitate gutxiko lipoproteinak

Libetina edo albumina serikoa oiloen lumetan, haragian eta arrautzetan egoten da, eta horrek azaltzen du hegazti-arrautzaren sindromea agertzea. Aipatu sindromean gaixoeek alergia-sintomak izaten dituzte oilo-lumen partikulak arnastean edo oiloen arrautzak edo haragia jatean.

Arrautzak eragindako alergiaren sintomak

Sintomak denbora-tarte laburrean gertatzen dira, asko jota ordubetean, elikagaia irentsi ondoren.

Sintoma ohikoenak azaleko erreakzioak izan daitezke, urdail-hesteetako sintoma eta arnasketa-sintoma akutuekin batera. Kasu larrienetan, anafilaxia erreakzio orokorra ere sor dezake (aurreko erreakzioez gain, hipotentsioa, kolapso baskularra eta bihotzeko disritmiak).

Agerraldi klinikoak (maiztasun handitik txikira):

Azaleko sintomak:

- a) Lesio eritematosoak, urtikaria eta babatzarrak elikagaia kontsumitu dutenen ukipen-zonaldean (elikagaia zuzenean ukitzean, musuak ematean, etab.). Eragina betazaletan, eskuetan edo modu orokortuan ager daiteke.
- b) Dermatitis atopikoa (DA) PLVek eragin edo handitu ahal dute. Zaila da sintoma ebaluatzea, ez baita berehalakoa; baina, alergia eragiten duen alergenoa baztertzean, hobekuntza ikusten da.

2) Urdail-hesteetako sintomak:

Ahoko alergia sindromea:Ukipen bidezko urtikaria da, orofaringekoa:hazkura eta angiedema ezpainetan, mingainean, aho-sabaian eta eztarrian.Nahiko azkar konpontzen da.

- b) Digestio-agerpenak:goragalea, sabelaldeko mina, gorakoa eta/edo beherakoa.

3) Arnasketa-sintomak:

- a) Bronkioen hiperaktibitatea, erantzun asmatikoak, errinokonjuntibalak (doministikuak, sudur eta begietako azkura, malkoak eta sudurraren kongestioa).

4) Anafilaxia:

- a) Aurretik deskribatutako sintoma batzuez edo guztiez gain, sintoma kardiobaskularrak ere badaude: hipotentsioa, arritmiak eta kolapso baskularra. BIZI LARRIALDIKO egoera da. Anafilaxia bereziki larria da gaixo asmatikoengan gertatzen bada.





Arrautza alergenoz ezkontu gisa

Arrautza osagai ezkontu gisa aurki daiteke beste elikagai askotan. Gozogintzako produktu askoren osagai nagusi gisa erabiltzen da; hala nola, hostopil, pasta, pate, hestebete, sakote, gazta, margarina, saltsa, zopa, ogi birrindu, ardo eta karameluetan.

Arrautza gehigarri gisa ere ager daiteke prozesatutako elikagai askotan; izan ere, emulsionatzaile, argigarri edo distiratzzaile gisa joki dezake.

